

EHU-wGuest, WiFi gonbidatuen ataria

Xedea

UPV/EHUK [eduroam](#) programan parte hartzen du. Programa horren helburua bertara atxikitako erakundeetako kideen arteko konektibitatea eta mugikortasuna erraztea da. Eduroam programak segurtasun eta baimentze mekanismoak ditu eta UPV/EHUKo irakasle eta ikertzaileek, AZPko langileek, ikasleek eta beste talde batzuek ([BESTEAK](#)) erabil dezakete.

Eduroam programa erabili ezin duten banakako bisitariak edo taldeko ekitaldietara bertaraturakoak sarera konektatzeko, WiFi sare bat sortu dugu. Sare horretara **EHU-wGuest** izeneko atari gatibu baten bidez sartu behar da.


EHU-wGuest-era sartzeko baldintzak

EHU-wGuest-era sartzeko, honako baldintza hauek bete behar dira:

- [Wi-Fi 802.11abgn](#)¹ estandarrak betetzen dituen gailua (ordenagailua, PDA, Smartphone, Tablet, etab.).
- UPV/EHUKo AZPko langileren baten edo irakasle edo ikertzailearen baten baimena. Horrek emango ditu EHU-wGuest-era konektatu ahal izateko beharrezko erabiltzaile izena eta pasahitza (sarbide kontua).
- Indarreko sarbide kontua, hau da, zaharkituta edo desaktibatuta ez dagoena.
- WiFi estaldura duen UPV/EHUKo gunen batean egotea.

EHU-wGuest sarea nola erabili

EHU-wGuest sarera sartzeko, EHU-wGuest izeneko SSIDrekin konektatu behar da. SSID horren segurtasuna oso oinarritzkoa da², konexioa egin aurretik jakinarazten den moduan.



Sarera konektatu ondoren, edozein orrialde ireki behar da, web nabigatzaile batekin. Eskaera EHU-wGuest atarira bideratuko da. EHU-wGuest atariak honako itxura hau izango du:



Beste orrialde batzuetara sartu ahal izateko, nahitaezkoa da emandako erabiltzaile izena eta pasahitza sartzea.

Zerbitzuaren mugak

- EHU-wGuest-en banakako bisitaldietarako sortutako kontuak pertsonalak eta, ondorioz, besterenezinak dira.
- EHU-wGuest kontuek 1 eta 30 egun arteko iraupena dute³.
- EHU-wGuest sarearen erabilera kontrolatuta dago.
- Interneterako sarbidea VPNak, web nabigazioa eta FTP zerbitzaria ezartzeko ataketara dago mugatuta.

Informazio gehigarria

- UPV/EHUren WiFi zerbitzua: <http://www.ehu.es/wifi>
- UPV/EHUren VPN zerbitzua: <http://www.ehu.es/vpn>
- EAZ: <http://www.ehu.es/cau>

¹ 802.11a y n estaldura gune jakin batzuetan bakarrik eskura daiteke.

² Konektatzen den pertsonaren ardura da bere gailua sare publiko batean egon ohi diren mehatxuetatik babestea eta sareko gainontzeko gailuen egoera ona arriskuan ez jartzea.

³ Salbuespen kasuetan, iraupen luzeagoko kontuak sor daitezke, baldin eta horretarako arrazoiak behar bezala justifikatzen badira.